

## KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Ez dut maite  
baina bai

Xabier Etxaniz Erle

Algar argitaletxe valentziarrak zortzi album argitaratu ditu euskaraz azken urte hauetan, eta horietako erdiak Rocio Bonillak eginak. Liburu bitxiak dira, eta egitura aldetik hauxe dugu horren froga argiena. *Neba-arrebak!* alde bietatik irakur daitezkeen obra dugu, ez du atzeko edo aurreko alderik, irakurleak bi azal aurkitzen ditu liburu honetan (ohiko azal eta kontrazalaren orde). Eta bi azal dituenek bi istorio irakur daitezke, bi narratzaile, baina egitura bera errepikatuta. “Ez dut arreba maite” esaldiarekin ekiten dio bere kontakizunari mutilak; “ez dut anaia maite” esaldiarekin, aldiz, neskak. Eta bai bata bai besteak neba-arrebaren alde txarrak aipatzen ditu, zergatik ez duen maite (txikia sentiarazten duelako, zapaltzailea delako; dena txikitzen duelako, negarrontzia delako...). Baina, askotan gertatzen den bezala, uste baino maiteago dugu pertsona hurbil hori. Kontakizuna hitzen eta irudien bidez egiten du Bonillak; hitz gutxi eta irudi esanguratsuen bidez mezu argia adieraziz irakurketa errazten digu.

Mila arrazoi egon daitezke neba-arreba bat gorrotatzeko, eta horietako batzuk aurki ditzakegu obra honetan. Mila arrazoi neba-arreba maitatzeko.

Rocio Bonillaren liburua benetan da atsegina, gustura irakur-ikusten dena eta haur txikiakin une atsegina igarotzeko aproposa (altzoan dituzula... edo talde txikitik eskolan); izan ere haurrei egunero gerta dakizkiekeen istorioak dira eta, amaieran, ukitu umoretsua irakurlea irribarrez uzteko.

***Neba-arrebak!***

ROCIO BONILLA

Ilustrazioak: Rocio Bonilla · Itzulpena: Gerardo Markuleta.  
Algar, 2018 · 52 orrialde · haurrentzat.

*Rocio Bonilla idazle eta ilustratzaile katalana (Bartzelona, 1970).*



Umorea, baina, ez da amaierako kontua soilik, batez ere amaieran ageri arren, kontakizunean zehar neba-arreba bakoitzak bestea animalia baten bidez irudikatzen baitu eta honek horrela jokatzeko duela kontatu. Narrazioaren erritmoan, gainera, irudietan protagonista hainbat aldiz agertzeak bizitasun handia ematen dio kontakizunari eta horrek, hainbatetan, areagotzen du umore kutsua.

Liburu ederra da Gerardo Markuletak euskaratu duen obra hau, bitxia, entretenigarria, umoretsua eta hunkigarria. Merezi du haurra altzoan hartuta eta ohean dagoela liburua hartu eta berarekin gozatzeak; merezi du taldetxoari irudiak erakutsiz kontatzeak. Eta, zergatik ez, agian zuk ere une atsegina igaroko duzu Rocio Bonillak egiten digun proposamenarekin. ■